



ITSASOKOAK

MARÍTIMAS



ITSasmuseum

Zbk.

02

API 2021

**«Atsegin zait itsaso ondoan jaio izana; askatasun eta
aldaketa seinale iruditu izan zait beti»**

Xanti Andiaaren kezka (Pío Baroja)



SARRERA

Pandemia egoerak baldintzatu du gure bizitza, bai pertsona gisa bai gizarte gisa. Gure elkartasuna eta besarkada bat hurbileko norbait galdu dutenei edo egoera zailean dauden guztiei.

Itsasmuseumen bilduma, erakusketa iraunkorra, bisitaren esperientzia eta, azken batean, museoaren proposamen kulturala hobetzen eman dugu denbora hau guztia. Itsasokoak aldizkariaren bigarren ale honetan, museora ekarritako azken piezen berri emango dugu, labur-labur. Pieza horiek guztiek dute balioa, nola ondarearen ikuspegitik, hala ikuspegi artistikotik, eta koherentzia eta sendotasuna ematen diote museoaren diskurtsoari.

Bereziki harro gaude Erripa eremuko ontziola eredu baten zaharberritzearekin, balio handia baitu ondarearen ikuspegitik. Dohaintzan jaso dugu, eta poliki-poliki emango dugu horren berri. Erain taldearen zaharberritze lan izugarria izan da, eta bereziki Carmen López Camarzana eta Maite Zubietarena.

Horrez gainera, aldi baterako erakusketa berri bat dugu: "Zura eta ura". Argazki-literatura proiektu bat da, Konrado Mugertzaren hogeit hamar argazki inguruz osatua. Irudi horiekin batera, letren, artearen eta akademiaren alorreko pertsona ezagunen testuak, kontakizunak edo poemak erakusten dira. Gure arrantza portuetan egurrezko ontzien ordez plastikozko materialez egindako ontziak erabiltzen hastearen ondorioz, portuek nortasuna galdu dute, ontzi berrien kubieta zuriek ez baitituzte inondik ere beste haien kolore gorri, berde eta urdinak gogorarazten, eta horri buruz gogoeta egitera bultzatzen gaitu erakusketak.

Proiektu berritzaileen artean Carolaren arima dago. Argi eta soinu proposamen artistiko bat da, Itsasmuseumek eta Jon Astorquizak (Elektrart) garabi ikonikoan elkarlanean egin. Hiriaren iragana eta oraina lotzen ditu, artearen eta ondarearen bitartez.

Jon Ruigómez Matxin



DANIEL ZULOAGA

1880 - 1952

Escultor, pintor, arquitecto, diseñador gráfico, ceramista y escritor vasco.

Formó parte de la generación de artistas vascos que se formó en el taller de Eusebio de Azpeitia.

Trabajó en el taller de Eusebio de Azpeitia y en el taller de Eusebio de Azpeitia.

Escultor, pintor, arquitecto, diseñador gráfico, ceramista y escritor vasco.

Escultor, pintor, arquitecto, diseñador gráfico, ceramista y escritor vasco. Formó parte de la generación de artistas vascos que se formó en el taller de Eusebio de Azpeitia. Trabajó en el taller de Eusebio de Azpeitia y en el taller de Eusebio de Azpeitia. Escultor, pintor, arquitecto, diseñador gráfico, ceramista y escritor vasco.

**PIEZA. Itsasmuseumeko
itsas bildumari balioa
emateko atala, pieza
nabarmenduaren, pieza
zaharberriaren edo
dohaintzan jasotako
ondasunaren bidez**

Pieza berriak

Itsasmuseum

Lehenik, Daniel Zuloagaren horma-irudi zeramikoaren dohaintza nabarmentzen da. 1900. urtean egin zen lana, meatzaritzaren esparruko Tomás Allende enpresaburuaren Indautxuko jauregitxo edo “udako etxea” apaintzeko. 20 metro koadroko lana da, eta XIX. mendearen amaierako jardue-
ra ekonomikoa islatzen duten lau eszena agertzen dira: mea kargatzaile bat, kai bat zamaleku batekin eta mea ustiategi batekin, arrantza portu bat eta itsasadarren irudi bat, hondoan industria siderurgikoa ikusten dela. Jatorriz, zortzi eszena zituen lanak eta gaur egungoaren bikoitza zen tamainaz.

Etxe pribatu batean gordeta egon da, eta handik etorri da, Goizane Bengoetxea eta Jon Corellen dohaintza eskuzabalari esker eta, orobat, Equipo7 taldearen lan teknikoari esker, esku hartze berran konplexua izan baita; Andrew Gangoitik ere lagundu du, eta beste hainbat lagun (Maite Paliza eta Miguel Zugazak besteak beste) eta erakunderen (Bizkaiko Foru Aldundia) laguntzari esker ekarri ahal izan da itsas museora. Bertan, testuinguru bereziki egokian dago ikusgai, ehun urtetik gorako zamaleku, itsasontzi eta zubien maketen alboan; gainera, ezin hobeto egokitzen zaio aretoaren diskurtso museologikoari. Gogoan izan behar dugu, halaber, aurtan Daniel Zuloagaren heriotzaren mendeurrena dela, zeinak esku hartze ugari egin baitzituen Bilbon.

Bestalde, eta Arte Ederren Museoarekin izenpetutako Obra Gonbidatua Programaren barruan, Jesusmari Lazkanoren lan panoramiko bat jaso dugu, *Bilbo MMX* izenburua duena eta 2010ean Shanghaiko Erakusketa Unibertsalean egon zena Esther Pizarroren instalazio artistikoarekin batera; gaur egun, halaxe dago museoan. 7,20 metroko mihiseak



oso modu pertsonalean islatzen du hiriaren izpiritua. Gainera, hamar bat zirriborro inguruk artistaren sorkuntza prozesua hobeto ulertzen lagunduko digute.

Obra Gonbidatua Programa horren beraren barruan, Julián de Tellaechearen maisulan bat dugu, *Txo Txuria* olio pintura, eta Quintín de Torreren eskultura izugarri bat, *Lemazaina*. Lan horiek, balio artistiko izugarriaz gainera, istorio ugari dituzte gordeak, ezagutzeko modukoak.

Aipatutako izen handien artelanez gainera, besteak beste Zuloaga, Lazkano, Tellaeche eta Torre, museoak erakusketa iraunkorrerako sarrera gunea berritu du, pieza arkeologikoekin: Santimamiñeko aztarnategiko oskolen zintzilikari bat, historiaurreko itsaskien arrantza aipatzen duena; Lekeitioko aztarnategiko anforatxo bat; balea arrantzaren aipamen zuzena egiten duten kostaldeko zigiluen eta armarren erreproduzioak; itsasadarrean aurkitutako erromatar txanponak; eta

Bizkaiko Golkoaren garrantzi historikoa eta Bilboko itsasadarraren bilakaera islatzen duen lehen mailako sail kartografikoa.

Pieza horiei guztiei esker handitu egiten da Itsasmuseumeko bildumaren balioa. Kanpoan, kaiek, 1868an eraikiak, eta alboan Ponpa Aretoak, caissonak, Carola garabiak eta itsasontzi bildumak (Portu Gangila, Antxustegi Berria, Auntz, Gabarra, Euskadi-Europa 93, Pilot...) lehen mailako ondare multzoa osatzen dute. Eta barruan, traineruak, star delakoak, ereduak, nabigatzeko tresnek, dokumentuek, marinek, litografiek, exvotoek eta hainbat eta hainbat piezak Bilboko itsasadarraren eta Bizkaiko golkoaren itsas unibertsuaren hainbat alderdi irudikatzen dituzte.



[Bildumara joan](#)

ERAIN. Erain proiektuaren eta, zehazki, *Antxustegi* ontziaren zaharberritzearen bilakaeraren berri emateko atala

Ontziola eredu/adarkatua edo armategikoa

Carmen López Camarzana

Lehenik, definitu beharko genuke zer den ontziola eredu/adarkatua edo armategi eredu: modu errazean adieraz daiteke eskala txikiko ereduak direla, eta erai-kuntza berri bat eta itsasontzi baten trazatura ebolutiboen bilakaera aztertze eta analizatzeko balio dutela. Eredu mota horrek aukera ematen du benetako itsasontzi baten diseinu akatsak eraiki aurretik zuzentzeko, eta baita ontzijabe bati egiten zaion aurkezpenean sortzen diren gomen-dioak egokitzeko ere.

Historia pixka bat eginez, zenbait testuren arabera, 1596. urte inguruan hasi ziren erabiltzen,

Ingalaterran, Phineas Pett-ek ("shipwrights" edo ontzigintzako arotza; Chatham Dockyarden bizi zen, Royal Navyk Medway ibaian, Kent konderrian, Ingalaterrako hego-ekialdean, zuen ontziolan) eredu txiki bat egin zuenean Lord Burghleyrentzat, zeina baitzen Lord Diruzaina; Elisabet I.aren erreinaldian bete zuen kargu hori, eta haren aholkulari pribatua ere izan zen.



Phineas Pett

Handik urte batzuetara, beste bi eredu egin zituen bere adiskide John Trevorrentzat. 1607. urtean Prince Royal egin zuen James I.a erregearentzat eta beste eredu bat Henry printzearentzat, a posteriori, baina aurrekoak baino askoz ere

landuagoa tailuei eta pinturei dagokienez.



Chathameko Ontziola 1790an, Nicholas Pocock

Horrez gainera, hainbatek esaten dute eraikuntzako eredu edo ontziola eredu esaten zaienak merkataritza ontzidientzat egiten zirela, eta armategi ereduak, berriaz, armadarentzat; beste batzuen ustez, ordea, ez zegoen halako bereizketarik. Era berean, eredu horiek guztiak ontziaren planoekin batera egiten eta aurkezten ziren, eraikitzen hasi aurretik, "eraikitzaileen batzordeak" azter zitzan, hark eman behar baitzion oniritzia proiektuari. Eredu guztiek berregiten dituzte, eskala txikian, jatorrizkoaren egiturak eta mekanismoak; hainbat saiakera egiten ziren haiekin, eta saiakera horien emaitzak aztertu ohi ziren, jatorrizkoaren fabrikazioa hobetzeko.

Era horretako ereduak eskala handian eraiki ohi dira; istriborre-

ko alboa estali gabe uzten da oro har, egituraren erakuntza xehetasunak agerian uzteko, hala nola gilagaina, kostilak, bularraren barrualdea, korasta, etab.



Zaharberritzeko prozesuan dagoen Itsasmuseumeko bildumako adar Erdiko ereduak

Madrilgo Itsas Museoak bilduma handia du, Elisabet II.aren, Alfontso XII.aren eta Austriako Maria Kristinaren errege bildumetatik jasoak, eta La Carracako (Cádiz) eta Cartagenako armategietakoak dira. Ikerketa lan handi bat dago, *Modelos de arsenal del Museo Naval* (Jose I. González Aller. ISBN: 84-7782-959-4), horien eraikuntza eta bilakaera aztertzen duena, eta orobat aztertzen dituena XVII. mendetik XVIII. mendearen amaiera bitartean erabilitako sistemak eta ereduak.

Badaude hainbat eredu, erdiadarkatu izenekoak, adarkatuek ez bezala, kanpoko eta barruko



Merkataritza-bergantin baten kroskoaren ereduia ontzitegiaren gainean (c.1850) [MNM-5205]
Bi zubi adarretan eta harmailetan dituen itsasontzi-eredua [MNM-2639]



itxura baino berregiten ez dutenak eta ulertzeko ezinbestekoak diren xehetasunak baino ez dituztenak. Eredu mota horri dagokionez, Itsasmuseumen antzeko ezaugarriak dituen eredu bat dago, baina aurrerago aztertuko dugu, zaharberritze fasean baitago une honetan.

Amaitzeko, eta bitxikeria gisa, sarean ikusi dugu Annapoliseko Amerikar Ontzidiaren Museoa (Maryland) armategi eredu mota horietako askoren bilduma izugarria duela; britainiarrenak dira, XVII. mendetik XIX. mendera bitartekoak eta kalitate bikainekoak.

Eredu horiek haien esku egotea harrigarria iruditu zitzaigun, nahiz eta berehala izan genuen erantzuna... Era horretako ereduak zituzten britainiar nobleziako familiek amerikar handikiei saldu zizkieten XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran; beraz, diru kontua baino ez da.

Horrela, hainbat jaberren eskutatik igaro ondoren, Henry Huttleston



Yate Real Henrietta, detailea. (1679)

Rogersen bildumara iritsi ziren. Haren aita kapitaina zen, 1620an Mayflower ontziko jatorrizko erro-mesen ondorengoa, eta baita kapitain eta Rockefellerren bazkidea eta lehiakidea ere Standard Oilen. Henry Huttleston Rogers hil zenean, eredu haiek Amerikar Ontzidiaren Museoaren bildumara igaro ziren. ■

[Eraini buruz gehiago](#)

ALDI BATERAKOA.
Uneko aldi baterako
erakusketarekin zerikusia
duen alderdiren batean
sakontzeko atala

ZURA ETA URA

Konrado Mugertza

*Zurak eta urak musika dute, bizitza
darie, dantzan ari dira errimaren
eskutik: zurak ura du altzoan, hitz
hoskideon argazki koloretsuan, eta
naturaren musikak, hizkuntzarenak
eta nire baitakoak bat egin dute:
adarrez adar eta hostoz hosto doaz
eskutik maldan behera, gero eta
urrutiago. Itsasoraino.*

Anjel Lertxundi

Jesus Mari Lazkanok dio euskal
ontziak kolore primarioetan mar-
gotzen zirela, «*gehienean urdin,
gorri, berde edo beltza kroskoan,
eta orohar, zuria aparailuetan eta
zubian. Zergatik ez ditugu margotu*

*hori, malba, bioleta... kolorez?» Ko-
lore horiek herrien izakerari lotua
behar dute nonbait, mundua uler-
tzeko eta adierazteko modu bati,
eta denboraren poderioz identi-
tate-adierazle bihurtzera ailegatu
dira.*

Eta ontziek, portuko lonjetako
ateek, arrain-gurdiek... ez ezik,
garai batean haizeek ere kolorea
zuten, eta itsasoa margotzen zu-
ten marinel zaharrentzat, Kirmen
Uribek bere poeman dioskunez:
«*Beltza iparra, / berdea mendebala,
/ hegoa gori...».*

Modernitateak, globalizazioak,
eraldaketa nabarmenak ekarri
ditu, eta hain begibistakoa ez den
galeraren bat ere bai. Itsas aldean,
hamarkada gutxitan, materiale
sintetikoek egurra ordeztu duten
neurrian, mendetako itsas aro-
tzeria, ontzigintza eta konpontze-
mantentzeari loturiko industria
oso bat, ogibide bat, bizimodu bat,
desagertu egin dira, ixiltasunean,
gure begi axolagabeen aurrean.

Felipe Murelaga Lekeitioko itsas
arotz ohiak ondo ezagutu zuen
erriberako zurgintzaren urrezko
aroa, joan den mendearen erdi al-
dera. Berak kontatua da: bakarrik
Lekeition 4 ontziola zeuden; eta
antzera Ondarroan, Bermeon, Ge-

tarian, Hondarribian... Eurenean, Murelaga astilleroan, handietakoa izan gabe, 18 behargin ari ziren; bi gizonen artean, 30 metroko eukaliptoak botatzen zituzten baporeen gila pieza bakarrean egiteko; urtean 3 bapore 26 metroko uretaratzen zituzten... Zenbakiak eder!

Gaur, ezer ez. Gaur, hori guztia ilobei mundu ezezagun bateko istorioak kontatzeko baino ez da geratu. Unai Elorriagaren istorioa bezalakoak. Aititaren lehengusu bi ebanistak ziren Getxon, eta txipiroitarako sukarra ei zuten. Txalupa bat egin zuten. Baina, egin, eta elkarrekin haserretu ziren, antza txaluparen koloreaz ados jartzen ez zirelako. Eta auzia konpondu ezin-eta, zer egin? Ba, Salomonek bezala, ris-ras, txalupa zerraz erdibitu; erdia zuretzat eta erdia niretzat.

Antzinako garaien oroitarazle, Jokin de Pedoren irudimenean Antonek Butroe ibaian gora, denboran aztera, bere gabarran dsingan egiten duen txangoa: han ikusi ditu itsas arotzak astilleroan lanean, entzun du errotarren harribotsa, agurtu ditu egurginak eta ikazkinak...

Zerra-hots kirrinkariaren eta mailuen danbatekoen melodia;



oharrez zirrimarratutako planoak mahai gainean; zuraren txirbila eta tantarra, hautsa, nonahi; pinturaren usain sarkorra airean; kolore-probak han hemen; beharginen joan-etorri bizia; gila, branka, brunola, trankanilla, bragerak, zapatak, karela, kontrakarela gora eta behera haien ahotan, eta arkatza belarri gainean; ontzi berri baten hezurdura pixkanaka, jakituriaz eta mimoz, egurrezko haragiz gorputz hartuz doala... Horixe ziren astilleroak.

Gaur, tradizio horren kate luzea eten egin da. Gaur, Feliperen enbarkazino egurrezkoa Mendexako kanpinean dago, apaingarri.

Poliesterrak, beti berdin eta zuraren nobleziaren gabekoak, portuak mortutu ditu, eta beste kolo-

reen gainetik agintzen duen zuriak ikusmena itsutu eta paisaia pobretu egin du. Arantxa Urretabizkaia diosku inuitek hogeituztela zuriarentzat: baliagarriak ote gure «kolore zuri zikina»ren gama zahertasunez deskribatzeko?

Zuritasun arrunt, berdintzaile eta antzu hori, bere onura ukaezinek, "erabili eta bota" ereduaren proposamen estetiko aldarrikatu da.

Miren Agur Meabek bere prosa poetikoan «*galipota, itsas belarren usaina, kresalarena..., pinturaz ziprztinduriko adokinak, mahoizko amantalak, norai ugertuak...*» ekarriz, portuen paisaiaren gure pertzepzioa irudiz, kolorez, usainez, oroimenez... eraikitzen du.

Itxaro Bordak hausnar egiten du: «*koloreak geratzen dira, harrien arteko arrakaletan, egurraren muin hustuetan edo batelen branka akituen urraletan. Koloreen aztarna ahortzi hori da gure bizitzetatik geratzen dena*».

Bai, zilegi da galdetzea ea neurri batean ez ote garen idealizatzen ari behialako paisaia? Bartzuek gogoan dugun, edo gogoan uste dugun, paisaia hori? Baina, ezinbesteko erromantizismo edota oroiminaz jabetuta ere, zera ere

badago galdetzerik: arrantza-portuak, hainbeste kolorez jantziak, ontzi zaharren egurraren ehundurak eta pintura-geruzak agerian, herdoilaren geografiak burdina zaharkituaren azalean... ez dira, akaso, herri baten kolore, ehundura eta nortasunaren isla?

Egun, Jon Ruigomezen hitzetan «ez-leku» bihurtuta, aireportuak, merkataritza-guneak edo kirol-portuak bezala, gero eta antzerakoagoak dira, zurbilak eta berdinak, historia eta nortasungabeak, eta Bordak dioen moduan, zapore eta usain bakoak.

ZURA ETA URA proiektuan, eta argazkietan nabarmen, zura eta ura dira, hausnarketa honen elementu "sortzaileak", ontzi tradizional bat kontzeptualizatzeko elementu minimoak. Baina koloreak eta ehundurak, egurrean ez ezik, burdinan eta harrian ere bizi dira, eta berezko mikropaisaia zoragarriak osatzen dituzte.

Paisaiak eta mikropaisaiak, Leire Bilbaoren poema intimo eta xamurrean legez: «*Kalatxoriak adina jende zebilela oroitzen dut. / Itsasontzi bat porturatzen. / Gorria / aitarena lez. / Herdoila / amaren begiak lez.*» Paisaia eta mikropaisaia.

Beste ikuspegi batetik, honda-

kinek osatzen dituzten irudiek ere protagonismoa dute proiektuan. Horren harira hondakin-egoe-
ran dauden objektuen xarma oroitarazlea azpimarratzen digu Humberto Astibiak, Pérez Villaltaren hitzak ekarriz: «*Eraikina, funtzionalitatea kentzen zaionean iristen da bere edertasun mailarik gorenera*».

Giza eskuak sorturiko mihise horiek gero naturaren eta denboraren jarduerak modelatu ditu, eta hondakinez eta herdoilez, ehunduraz eta kolorez konposaturiko mikropaisaiak sortu ditu. Berezko arte-lan bihurtutako irudi horiek gure begirada hurbila eta pausatua eskatzen dute, intentzionatua; gure ikuseremuan arakatu beharra haratago ailegatzeko, bai eta gure sentsibiltatearen begiez behatzekoa, edertasuna bistaratzeko.

Eta garai berrien gurpilean endredatuta gabiltzala, identitatea eta behialako edertasuna elkarren eskutik ihesean doazki-
gu, oharkabean, nola harea atzamarren artean.



ZURA ETA URA proiektua, argazkiz eta idatziz, ontzien eraikuntzan material sintetikoek egurra ordezteak ekarri duen kolorearen eta identitatearen galeraren inguruko gogoeta koral bat da.

Idatziak

Humberto Astibia, Leire Bilbao, Itxaro Borda, Unai Elorriaga, Jesus Mari Lazkano, Anjel Lertxundi, Miren Agur Meabe, Konrado Mugertza, Felipe Murelaga, Jokin de Pedro, Jon Ruigomez, Kirmen Uribe, Arantxa Urretabizkaia

Proiektua eta argazkiak

Konrado Mugertza

ITSAS ISTORIOAK. Itsas gaietako artikuluak edo itsasoarekin zerikusia duten pertsonen elkarrizketak dituen atala

Gabarra eta Carola egunak

Jon Astorquiza

Juan Carlos Latxagaren liburua-
ren izenburuaren antzera, gaba-
rra eta loria egunak dira. Hiri ba-
ten, kolore batzuen eta ordeztan
gaituzten ikonoen partaide izatea-
ren sentimendua bizi-bizirik dago
egun hauetan, inoiz baino gehiago.
Eta lotura emozional horien guz-
tien erdigune den aldetik, hiria-
ren iraganarekin, orainarekin eta
hurbileko etorkizunarekin lotzen
gaituzten osagai ikonikoen sare
hori ehuntzen du Itsasmuseumek.
Itsasadarra, Gabarra, San Mames
edo Carola garabia.

Azken hori hiriaren eraldake-
taren lekuko izaten ari da beste
behin. COVID-19aren pandemiak

jotako Bilboko kale bakartietatik
Gabarra, Itsasmuseumaren on-
darea, kai lehorrera lotzen duen
amarralekutik askatzeko eta
itsasadarrean ikusteko irrikaz
dauden milaka athleticzaleen
pozera arteko eraldaketa. 83an
ere gertatu zen, uholdea eta ga-
raipena. Aurten ere badagokigu.
Pandemia eta garaipena.



Bada, edonola ere, azken hi-
labeteetan aldatu den beste zer-
bait ere: gauetan, aldatu egin da
Bilboko zerua, Itsasmuseumeko
zabaldegitik. Erabateko ilunta-
suetik argiz jantzitako Carola
garabiaren irudi estilizatu eta
izugarrira. Hiri paisaia berri bat,
gogorarazten diguna nondik ga-
tozen eta nola iritsi garen hona-
ino. Carolaren arima nola edo
hala gauzatu beharreko proiektua
da, bihotzetik irteten delako eta
herritarren bihotzetara iritsi nahi

duelako. Carola garabiaren burdinazko egitura ederra argiztatu ez ezik, argitasuna eman nahi zaio haren izateari lotutako oroitzapenari eta memoriari, Bilboren eta Bizkaiaren ondare industrial gisa hirian bertan gordetzeko asmoari.

Urteko ostiral eta larunbat guztietan, Carola garabiak berak interpretatzen du bere historia, itsasora begira dagoen gizarte bat garela gogoraraziz hasten den argiztapen eta soinu bandaren bitartez. Egurrak, zerrek, paper latzek edo garlopek itsasontzien lehenengo materialak ekartzen dizkigute gogora, eta soldaduren hotsak entzuten hasten dira, bien bitartean. Metala. 12 minutuko hots eta argi pieza baten bitartez, Carolaren arimak ontzigitzak bizitasun handien izan zuen garaira eramaten gaitu, eta orobat eramaten gaitu ziurgabetasun urteetara eta Euskalduna tailerren itxierara, bertako langileen protestetara, eta, azkenik, krisi eta birmoldaketa urteen ondoren, gaur egun eza gutzen dugun Bilbora, zeinetan ontzigitzaren industriak bide eman baitio kulturaren industriari.

Carolaren arima osatzen duten argien eta soinuen arteko loturak denboran bidaiatzera eramaten

gaitu, hiriaren eraldaketara, eta gaur egungo hiriaren modernotasunaren eta berrikuntza kulturalaren ikono gisa jasotzen da. Aurreranzko urrats bat da herritarrek artearen eta kulturaren munduarekin erlazionatzeko moduan.

Udaberrian, 21:00etatik aurrera hasten da eguzkia sartzen, eta, une horretan, Carola garabiak hartzen du protagonismoa. Ordu horretan hasten da argi eta soinu instalazio artistikoa, zeinaren bitartez ikusten dugun nola kontatzen digun Carola garabiak Itsasmuseumen ingurunearen historia; izan ere, historia horren lekuko mutua izan da garabia, 1984an bere jarduera eten zuen unetik beretik.

Hilabete gutxi igaro dira Carolaren arima estreinatu eta Carola garabia berriro iratzarri denetik. Eta dagoeneko ezin dugu Bilboko gauetako zerua Carola gorriaren distirarik gabe irudikatu. ■

J. S. ELKANO. AZTARNAREN BILA



Apirilaren 25era arte

ZURA ETA URA



Irailaren 26ra arte

**Eman alta Itsasmuseum Komunitatean
eta harpidetu gure newsletterrean!**

www.itsasmuseum.eus

ORDUTEGIA

Astartetik igandera
11:00 - 19:00

UDABERRIKO JARDUERAK

Familientzako bisita gidatuak
(12 urtetik gorako adingabeak)
Larunbat eta igandeetan, 17:00etatik 18:00etara

Haurrentzako tailerrak (4-11 urte)
Larunbat eta igandeetan, 12:00etatik 13:30era

“Nabigazioaren historia”
Playmobil erakusketa
2021eko apirilaren 18ra arte